


# H<sub>LH3</sub>

2016/2017



# Zuzenketarako Koaderno

*Izen-deiturak*

*Ikastetxea*

*Taldea*

*Herria*

*Data*

## Idazmena

*LHko 3. maila*



Probaren lehen zati hau  
egiteko 45 minutu dituzu.

# Idazlana

Orain zeu izanen zara idazlea..., zeure istorioa idatziko duzu!

Zure desiorik handiena da, baina gurasoek ez dizute etxera maskotarik ekartzen uzten. Hala ere, gaur gauean, zuekin maskota bat bizi dela egin duzu amets...



Idazten hasi aurretik ongi **pentsatu** zer istorio kontatuko duzun.

Hona hemen istorioa asmatzen lagunduko dizuten galdera batzuk:

1. Zer pertsonaia agertuko dira zure istorioan?  
Nolakoak dira? Non daude? Zer egiten dute?
2. Zer gertatzen zaie pertsonaiei?  
Zer arazo topatzen dute?
3. Zer egiten dute arazoa konpontzeko?
4. Nola konpontzen da arazoa?
5. Nola bukatzen da istorioa? Zer ikasten dute pertsonaiek istorio honen bidez?

Hemen ez da ezer idatzi beharrik.

Gogoan izan:

- Idatzi letra argiarekin.
- Banatu testua paragrafoetan.
- Zaindu ortografia.
- Ez ahaztu puntuazio-markak erabili behar dituzula!

**Zuzentzaileak edo irakasleak  
bete beharreko puntuazio taula**

	Puntuazioa 0, 1, 2 edo 3
Aurkezpena eta ortografia	
Kontakizunaren koherentzia	
Zuzentasuna eta hiztegiaren aberastasuna	

**Guztira**

*[A series of 25 horizontal dotted lines spanning the width of the page.]*

**Amaiera**



## Idazlana zuzentzeko irizpideak (Lehen Hezkuntzako 3. maila)

Zuzenketa lanean ondoko alderdietan eman behar da puntuazioa: egokitasuna eta aurkezpena, koherentzia, kohesioa eta zuzentasuna. Alderdi bakoitzari 0tik 3ra bitarteko puntuazioa emanen zaio, ondoko irizpideen arabera:

	0 puntuazioa	1 puntuazioa	2 puntuazioa	3 puntuazioa
Aurkezpena eta ortografia	<p>Oso eskasa Lehen Hezkuntzako 3. mailarako.</p> <p>Idazkiaren aurkezpena txarra da eta akats ortografiko asko ditu.</p>	<p>0 puntuazioaren (puntuazio eskasa) eta 2 puntuazioaren (puntuazio egokia LHko 3. mailarako) arteko maila du.</p> <p>2 puntuazioko eskakizunetako hiru bete ditu.</p>	<p>Lehen Hezkuntzako 3.erako maila egokia erakutsi du, honako eskakizun hauek bete dituelako:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <u>Txukun idatzita dago</u> (ez dago zirrimarrarik...)</li> <li>▪ <u>Letra</u> argia eta irakurterraza.</li> <li>▪ <u>Mariinak</u> ongi zehazturik daude.</li> <li>▪ <u>Ortografia</u>: testu laburrak direnean (10-15 lerro), bost akats, gehienez (tz/ts/tx/z/s/x gaizki idatziz gero, horietako 5 akats bakartzat hartuko dira); zortzi akats, gehienez, testuak luzeagoak direnean.</li> </ul>	<p>Lehen Hezkuntzako 3. mailako curriculumeko ebaluazio irizpideen arabera, bikaintasuna erakutsi du.</p> <p>2 puntuazioko lau eskakizunak bikain bete ditu; ortografia akats gutxi egin du.</p>
Kontakizunaren koherentzia	<p>Oso eskasa Lehen Hezkuntzako 3. mailarako.</p> <p>Koherentziarik eta egiturarik gabeko kontakizuna egin du. Edukiari dagokionez, jauziak eta justifikatu gabeko hutsuneak daude.</p>	<p>0 puntuazioaren (puntuazio eskasa) eta 2 puntuazioaren (puntuazio egokia LHko 3. mailarako) arteko maila du.</p> <p>2 puntuazioko eskakizunetako lau bete ditu.</p>	<p>Lehen Hezkuntzako 3.erako maila egokia erakutsi du, honako eskakizun hauek bete dituelako:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <u>Egitura</u> argia: gertaerak kronologikoki kontatu ditu, ongi deskribatu ditu tokiak eta sentipenak (ipuinaren kasuan: aurkezpena, korapiloa eta bukaera bereizi ditu).</li> <li>▪ <u>Paragrafo kopurua</u>: hiru paragrafotan, gutxienez, banatu du testua paragrafoetan.</li> <li>▪ <u>Bilakaera tematikoa</u>: ez da perpaus batzuetatik besterako jauzirik antzeman, ezta justifikatu gabeko hutsunerik ere; kontakizuna erraz segitzen da.</li> <li>▪ <u>Perpausak</u>: perpausak ideia osoak adierazten dituzte.</li> <li>▪ <u>Joskera</u>: paragrafoak zein perpausak ongi loturik daude (lokailuak, menderagailuak, puntuazioa).</li> <li>▪ <u>Pertsonaien ezaugarritzea</u>: pertsonaiak eta beren ekintzak ongi zehazturik daude (nork zer egiten duen argi gelditzen da).</li> </ul>	<p>Lehen Hezkuntzako 3. mailako curriculumeko ebaluazio irizpideen arabera, bikaintasuna erakutsi du.</p> <p>2 puntuazioko eskakizun guztiak bikain bete ditu. Horretaz gainera, idazlanak ezaugarri hauek ditu: argitasuna, hiztegi aberastasuna, testua arintzen duten hizkuntza baliabideak erabiltzea (<i>orduan</i>; <i>geroago</i>; <i>hala ere</i>, etab.); ez dago alferrikako errepikapenik; ez da erabat aurreikusteko modukoa), ez dago jauzirik edo hutsunerik.</p>
Zuzentasuna eta hiztegiaren aberastasuna	<p>Nabarmen eskasa Lehen Hezkuntzako 3. mailarako.</p> <p>Perpausak ez dira zuzenak. Ez ditu bereizi kode idatzia eta ahozkoa: hitz egiten duen bezala idatzi du. Gramatika akats dezente egin ditu.</p>	<p>0 puntuazioaren (puntuazio eskasa) eta 2 puntuazioaren (puntuazio egokia LHko 3. mailarako) arteko maila du.</p> <p>2 puntuazioko eskakizunetako hiru bete ditu.</p>	<p>Lehen Hezkuntzako 3.erako maila egokia erakutsi du, honako eskakizun hauek bete dituelako:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <u>Sintaxia</u>: idazlanean erabilitako sintaxi egiturak zuzenak dira. Ongi eraturiko mendeko bi perpaus erabili ditu, gutxienez.</li> <li>▪ <u>Aditzak</u>: oro har, zuzen erabili ditu (denbora eta aspektua).</li> <li>▪ <u>Komunztadura</u> akats batzuk egin ditu (ergatiboa, pluralgilea...).</li> <li>▪ <u>Deklinabidea</u>: kasu markak ongi erabili ditu, oro har.</li> <li>▪ <u>Erregistroa</u>: argi eta garbi bazterrean utzi ditu lagunarteko eta ahozko hizkuntza.</li> <li>▪ <u>Lexiko</u> egokia erabili du (adjektiboak, adberbioak, hitz eratorriak, hitz elkartuak...). Pertsonaiei eta ekintzei buruzko informazio garrantzitsua ematen dute erabilitako hitzek.</li> </ul>	<p>Lehen Hezkuntzako 3. mailako curriculumeko ebaluazio irizpideen arabera, bikaintasuna erakutsi du.</p> <p>2 puntuazioko eskakizun guztiak bikain bete ditu. Horretaz gainera, ez du gramatika akatsik egin, lexiko aberatsa baliatu du eta sintaxia menderatzen duela erakusten duten zenbait esamolde erabili ditu. Testua oso ongi idatzita dago, kontuan izanik Lehen Hezkuntzako 3.mailan gaudela.</p>

